

**DUETO BILBAO programan parte hartu nahi
duten Diseinu Estudioentzako deialdia**

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	3
2. DEIALDIAREN XEDEA	3
3. DUETO BILBAO PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA.....	4
3.1 Eragile parte-hartzaileak.....	4
3.2 Baldintza ekonomikoak.....	4
3.3 Programaren faseak.....	4
a. Lankidetza formalizatzea	4
b. Proiektua gauzatzea.....	4
c. Itxiera eta ebaluazioa.....	5
d. Diseinu-estudioari ordaintzea.....	5
4. PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA.....	5
4.1 Erronkaren deskribapena	5
4.2 Erronkarako bereziki egokia den profil profesionala.....	6
4.3 Enpresak aurreikusitako baliabideak eta lankidetza	6
5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK	6
6. KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK	7
7. AURKEZTEKO EPEA, DOKUMENTAZIOA ETA MODUA	8
8. BALORAZIO PROZESUA ETA IRIZPIDEAK	10
8.1 1. fasea: Ebaluazio teknikoa (50 puntu, gehienez)	10
8.2 2. fasea: Ebaluazio kualitatiboa (50 puntu, gehienez).....	11
9. DATU PERTSONALEN BABESA	12
9.1 Tratamenduaren helburua.....	13
9.2 Tratamenduaren oinarri juridikoa	13
9.3 Datuak gordetzea.....	13
9.4 Hartzaileak eta lagapenak.....	13
9.5 Interesdunen eskubideak	13
9.6 Tratamendu gehigarriak	14
10. KONFIDENTZIALITASUNA	14
11. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA.....	14

1. AURKEZPENA

Bilbao Ekintza, EPELe (aurrerantzean, "Bilbao Ekintza") Bilbon aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea du helburu, eta, horretarako, inbertsioak egiteko, enpresak sortzeko eta bertan hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko gaitasunak indartzen dihardu eta laneratzeko aukerak hobetzen ditu.

Testuinguru horretan, Bilbao Ekintzak Berrikuntzako Ekosistemen Unitatea du, Hiri Ekonomiaren Sailean integratua. Unitate horren lehentasunezko helburuen artean dago hiriaren garapen ekonomikoa bultzatzea, gorabidean dauden sektoreen aldeko apustu estrategiko baten bidez, espezializazio adimendunaren esparruan, eta horien artean diseinua nabarmentzen da.

Alde horretatik, dokumentu honen xedea da Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek sustatutako Dueto Bilbao Programan parte hartzeko baldintzak arautzea. Programa hori tokiko ekonomia sustatzeko tresna da, hau da, enpresei berrikuntzan eta diseinuan laguntzeko zerbitzua ematea, eta enpresen eta diseinu-estudioen arteko lankidetza-prozesua antolatzea.

Programa interes publikoko zerbitzutzat jotzen da, Bilbao Ekintzak bere eskumenak erabiliz ematen duena, zehazki, sustapen ekonomikoaren arloan (TAOAL 25. art. eta 2/20216 Legeko 17. art.) eta bere estatutuetan Bilbao Ekintzari esleitutako eginkizunak betez.

2. DEIALDIAREN XEDEA

DUETO BILBAO programaren helburu nagusia diseinua enpresetan tresna estrategiko gisa txertatzea da, lehiakortasuna hobetuko duten irtenbide berritzaileak sortuz.

Horretarako, Dueto Bilbao programak Bizkaiko enpresa baten (erronka estrategiko bat planteatzen duena) eta Bilboko diseinu-estudio baten arteko lankidetza bultzatzen du, diseinu-metodologiaren bidez irtenbide berritzaileak garatzeko. Gehienez lau hilabetez, diseinu-estudio batek enpresa bati laguntzen dio lehentasunezko zat jotako erronka bati aurre egiten.

Helburu horrekin, DUETO BILBAO programan parte hartzeko interesa duten Bilboko udalerriko diseinu-estudioei zuzendutako deialdi hau jarri da abian, Bilbao Ekintzak alde aurretik hautatutako enpresak planteatutako erronkari heltzeko.

3. DUETO BILBAO PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA

3.1 Eragile parte-hartzaileak

Deialdi honen ondorioetarako:

- **Enpresa:** proiektuaren xede den erronka proposatzen duen enpresa parte-hartzailea da.

Diseinu-estudioa: proiektua garatuko duen diseinuaren arloko profesionala, taldea edo enpresa (autonomoak barne). Horretarako, diseinuaren arloko profesionaltzat hartuko dira Europar Batasuneko lurraldean beren lanbidea legez gauzatzeko gaitasuna duten pertsonak.

3.2 Baldintza ekonomikoak

- Enpresak **1.000 euroko fidantza jarri beharko dio Bilbao Ekintzari**, proiektua garatzeko konpromisoaren berme gisa, eta, hala badagokio, proiektuaren ondoriozko materialen kostuak bere gain hartu beharko ditu.
- Bilbao Ekintzak diseinu-estudioaren kontratazioa finantzatuko du, **10.000 eurokoa** (gehi BEZa), programaren esparruan zerbitzuak emateko.

3.3 Programaren faseak

a. Lankidetzak formalizatzea

Enpresa eta diseinu-estudioa hautatu ondoren, lankidetzak hori formalizatuko da, honako hauen bidez:

- Lankidetzak hitzarmen bat sinatzea Bilbao Ekintza, E.P.E.L.en, enpresa parte-hartzailearen eta hautatutako diseinu-estudioaren artean.
- Enpresaren eta diseinu-estudioaren artean proiektua definitzeko dokumentu bat formalizatzea. Dokumentu horretan, gutxienez, proiektuaren irismena, helburuak, entregagaiak, lan-metodologia eta gauzatzeko baldintzak ezarriko dira.

b. Proiektua gauzatzea

Diseinu-estudioak hautatutako enpresarekin lankidetzan garatuko du proiektua, gehienez ere lau (4) hilabetez, baina alderdiek berariaz adostuz gero, balizko luzapenak izan ditzake.

Bilbao Ekintzak proiektuaren jarraipen teknikoa egingo du, eta proiektua behar bezala gauzatzen dela egiaztatzeko behar den informazioa bildu ahal izango du.

c. Itxiera eta ebaluazioa

Diseinu-estudioak, enpresa parte-hartzailearekin lankidetzan, amaierako memoria bat egingo du, eta bertan jasoko dira egindako jarduketak, lortutako emaitzak eta, hala badagokio, horiek inplementatzeko edo etorkizunean garatzeko gomendioak.

Bilbao Ekintza, EPELe programaren emaitzak ebaluatuko ditu, hasieran ezarritako helburuen arabera.

d. Diseinu-estudioari ordaintzea

Diseinu-estudioari dagokion zenbatekoa bi fasetan ordainduko da:

- % 50 proiektuaren hasieran, dagokion kontratu-harremana formalizatu ondoren.
- Gainerako % 50a, proiektua amaitu ondoren, amaierako memoria entregatu eta baliozkotu ondoren.

4. PROIEKTUARI BURUZKO INFORMAZIOA**4.1 Erronkaren deskribapena**

Parte hartzen duen enpresak exoeskeletoetan oinarritutako soluzio teknologiko aurreratuak garatzen ditu, giza mugimenduari laguntzeko eta erabiltzaileen eta konplexutasun handiko sistema teknologikoen arteko interakzioa errazteko. Planteatutako erronkaren ardatza da produktu mota horren erabilera-esperientziarako elementu kritikoenetako bat hobetzea: exoeskeletoaren eta erabiltzailearen arteko egokitzen eta integrazio fisikorako sistema.

Gaur egun erabiltzen diren sistemek ergonomiarekin, erosotasunarekin, jartzeko eta kentzeko erraztasunarekin, profil antropometriko eta funtzionaletara egokitze gaitasunarekin, indarren eta mugimenduen transmisio eraginkorrarekin eta osagaien iraunkortasunarekin eta mantentzearekin lotutako eskakizun zorrotzei erantzun behar diete.

Enpresak diseinu-estudio baten lankidetzan bilatzen du, teknologiaren eta erabiltzailearen arteko interfaze fisiko-funtzional hori birpentsatzen laguntzeko, pertsonengan oinarritutako ikuspegi batetik, arreta berezia jarritz erabilera-esperientzian, irisgarritasunean, egokitze erraztasunean, laguntzako profesionalekiko elkarreraginean eta produktuaren pertzepzio globalean.

Era berean, proiektuak produktuaren bizi-ziklorako iraunkortasun- eta diseinu-irizpideak barne hartzea espero da, hainbat alderdi aztertuz, hala nola modularitatea, konpontzeko modukoa

izatea, osagaiak ordezteko aukera, desmuntaketa, mantentzeko erraztasuna eta ekonomia zirkularraren printzipioen aplikazioa.

Espero den emaitza diseinu-soluzio berri baten definizio kontzeptuala da, exoeskeletoaren eta erabiltzaileen arteko interakzioa hobetzea ahalbidetuko duena, berrikuntza-aukerak identifikatuz, erabilera-esperientzia gogobetegarriagoa, efizienteagoa eta jasangarriagoa lortzen lagunduko dutenak eta produktuaren etorkizuneko garapenearako oinarri izango direnak.

4.2 Erronkarako bereziki egokia den profil profesionala

Erronkaren izaera kontuan hartuta, bereziki garrantzitsutzat jotzen da **industria-diseinuan eta produktu-diseinuan**, ergonomian, pertsonengan zentratutako diseinuan, fabrikaziorako eta muntaketarako diseinuan edo konplexutasun tekniko handiko produktuen **garapenean esperientzia duten profesionalen edo estudioen** parte-hartzea. Hala ere, proposatutako proiektuari ekiteko esperientzia eta gaitasun egokiak egiaztatzen dituzten hautagai guztiek parte hartu ahal izango dute.

4.3 Enpresak aurreikusitako baliabideak eta lankidetzak

Enpresa parte-hartzaileak zeregin aktiboa izango du proiektua garatzen den bitartean, eta baterako lana errazteko beharrezkoak diren baliabideak jarriko ditu diseinu-estudioaren esku. Proiektuak, bereziki, **zuzendaritzaren eta teknikari espezializatuen zuzeneko inplikazioa** izango du, eta produktuaren ezagutza zabala izango du. Horrez gain, informazio teknikoa, **diseinu- eta prototipo-instalazioak, balidazio-baliabideak eta benetako erabilera-inguruneak** eskuratzeko aukera izango du, proiektuan garatutako proposamenak aztertu eta kontrastatzeko. Halaber, enpresak adierazi du lortutako emaitzak bere produktuen etorkizuneko garapenean txertatzeko asmoa duela.

5. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Diseinuko edozein profesionalak edo edozein diseinu-estudiok parte hartu ahal izango du ekimen honetan, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu:

1. Jarduteko gaitasun osoa eta nortasun juridikoa izatea.
2. Jarduera Bilboko udalerrian garatzea. Horrekin lotuta, jarduera Bilbon egiten duela ulertuko da sozietatearen helbidea edo, behintzat, lantoki bat Bilboko udalerrian duela egiaztatzen badu.

3. Banakako enpresaburuak edo enpresa txiki eta ertainak (ETE) izatea. Horrekin lotuta, enpresa txikiaren (ETE) definizioa aintzat hartuko da [Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduko 2. artikulua](#) dioenari jarraikiz.
4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
5. Diseinuarekin lotutako proiektuetan gutxienez 5 urteko esperientzia izatea

Deialdi honetatik kanpo geratzen dira Administrazio Publikoak, Sozietate Publikoak edo halakoei atxikitako edo horien mendeko erakundeak.

Halaber, ezingo dute parte hartu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea (aurrerantzean, SPKL) jasotako kontratazio-debekuren bati loturik dauden pertsona fisiko edo juridikoak.

Baldintza horiek guztiak Dueto Bilbao programa garatzen den bitartean bete beharko dira.

6. KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK

Parte hartzen duten diseinu-estudioek konpromiso eta betebeharrak hartzen dituzte beren gain Dueto Bilbao programaren esparruan:

- a) Enpresak ezarritako epean planteatutako erronkari heltzeko prestasuna eta gaitasuna izatea.
- b) Enpresarekin lankidetzan estuan lan egitea. Horretarako, aldian-aldian enpresarekin batzartuko dira, proiektuaren aurrerapena gainbegiratzeko eta beharrezko doikuntzak egiteko. Gainera, komunikazio arina izango dute, Bilbao Ekintzari aldizkako informazioa emateko proiektuaren garapenari eta egoerari buruz.
- c) Amaieran, lankidetzaren garapena jaso eta azken emaitza erakutsiko duen memoria aurkeztea.
- d) Parte hartzea formalizatzea, dagokion lankidetzak akordioa sinatuta eta, hala badagokio, dagokion zerbitzu-kontratua sinatzea.
- e) Proiektuaren irismena zehazten parte hartzea, enpresarekin batera.
- f) BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.i baimena ematea sentikorrak ez diren informazioa edo proiektuaren emaitzak egoki irizitako bitartekoetan argitaratzeko, zabalkunde hori egiteko behar diren informazioa eta materialak emanez.
- g) Diseinu-estudioak proiektuaren hedapen-, komunikazio- eta/edo publizitate-jarduerak eginez gero, ematen zaizkion logotipoak sartu beharko ditu, eta adierazi beharko du proiektu hori Dueto Bilbao programaren barruan dagoela.

Dueto Bilbao Programaren garapenaren ondoriozko emaitzen, prototipoen, produktuen, diseinuen, metodologiaren edo dokumentuen titulartasuna enpresa parte-hartzaileari dagokio, salbu eta aldeek beste banaketa bat adosten badute enpresak eta diseinu-estudioak sinatutako berariazko dokumentu baten bidez.

Hala ere, diseinu-estudioak aplikatu beharreko legeriaren arabera dagozkien eskubide moralak gordeko ditu.

Aldeek bermatuko dute ez dela hirugarrenen eskubiderik urratzen proiektuaren garapenaren ondorioz.

7. AURKEZTEKO EPEA, DOKUMENTAZIOA ETA MODUA

Bilbao Dueto programan parte hartzeko eskaera aurkeztu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek **I. ERANSKINA (ESKABIDEA ETA ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA)** bete beharko dute, nahitaezko dokumentazioarekin batera, eta helbide elektroniko honetara, bidali beharko dute: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

I. ERANSKINA: Eskabide-inprimakia eta erantzukizunpeko adierazpena Bilbao Ekintzaren webgunean (<https://www.bilbaoekintza.eus/eu/proiektua/programa-dueto-bilbao>) eskura daitezke, Dueto Bilbao Programari buruzko gainerako informazioarekin batera.

Aurkezteko epea: 2026ko irailaren 1etik 14ra.

Webgunea: <https://www.bilbaoekintza.eus/proyectos>

Zalantzaren bat izanez gero, helbide elektroniko honen bidez galde daiteke: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla oinarri hauetan adierazten diren betekizunak eta betebeharrak.

Bilbao Ekintzak emandako informazioa argitzeko, zuzentzeko edo zabaltzeko eska dezake.

Aurkeztu behar diren dokumentuak

- **I. ERANSKINA:** ESKABIDEAREN INPRIMAKIA eta ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, oso-
osorik beteta.
- Programan parte hartzeko **motibazio-gutuna** (gehienez, 2 orrialde). Bertan adierazi behar
da interesdunaren esperientziak hautagaitza gaitzen duela, eta proposatutako erronketako
bati erantzuteko interesa justifikatu beharko du.
- **Curriculum Vitae-a** (gehienez, 2 orrialde/pertsonako). Pertsona juridikoen kasuan,
proiektuan parte har dezaketen pertsona guztien curriculumak aurkeztuko dira, zein
proiektutan lan egin duten adierazita. Guztiek bete beharko dute diseinuarekin lotutako
proiektuetan gutxienez 5 urteko esperientzia izateko betekizuna.
- **Egindako lanen portfolioa**, estudioak edo profesionalak garatutako hiru proiektu barne
hartzen dituenak, gehienez ere. Hautatutako proiektu bakoitzerako, deialdi honen
xedearekin duen lotura edo planteatutako erronkari heltzeko eskuratutako ikaskuntzen eta
esperientziaren garrantzia justifikatu beharko da.

Dokumentu honen gehieneko luzera **6 orrialdekoa** izango da.

Aukeran, web orrietarako estekak, portfolio digitalak edo azterketa-kasuak gehitu ahal
izango dira, hautaketan sartutako proiektuak xehetasun handiagoz kontsultatu ahal
izateko.

I. eranskina eta gainerako dokumentazioa (4) artxibo bereizitan bidaliko dira, lehen aipatutako
helbide elektronikora.

Parte hartzeko proposamena aurkezten duen pertsonak edo pertsonak bere gain hartzen dute
erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren
gainerako erantzukizun osoa.

Edozelan ere, Bilbao Ekintzak beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango die
eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta
ebaluatzeko.

8. BALORAZIO PROZESUA ETA IRIZPIDEAK

Parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, Bilbao Ekintzako batzorde tekniko batek balioetsiko ditu onartutako hautagaitzak, jarraian zehazten diren irizpide eta faseen arabera. Nolanahi ere, publizitatearen, lehiaren, tratu-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta objektibotasunaren printzipioak bermatuko ditu, eta hartutako erabakiak arrazoituta jasoko ditu.

8.1 1. fasea: Ebaluazio teknikoa (50 puntu, gehienez)

Aurkeztutako dokumentazioan bakarrik oinarritzen da.

IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	GEHIENEO PUNTUAZIOA (50 puntu)
1. Profil akademikoaren egokitzapena	Lantaldearen edo profesionalaren ezagutzen eta prestakuntzaren eta planteatutako erronkaren beharren arteko egokitasun-maila baloratuko da, besteak beste, profilaren espezializazioaren, eskatutako diseinuaren tipologiaren eta sektoreko ezagutzaren arteko korrespondentzia kontuan hartuta.	25 puntu
2. Esperientzia tekniko garrantzitsua	Programaren xede den erronkarekin lotutako proiektuetan edo erronka horri aplikagarriak izan daitezkeen ezagutzak, metodologiak edo ikaskuntzak emateko aukera eskaintzen duten proiektuetan egiaztatutako esperientzia baloratuko da. Balorazioan kontuan hartuko dira egindako proiektuen tipologia eta izaera, haien irismena, lortutako emaitzak eta planteatutako erronka espezifikoari aurre egiteko esperientziaren garrantzia.	25 puntu

1. fasearen emaitza

Ebaluazio teknikoa amaitutakoan, hautagaitzen zerrenda ordenatua jasoko duen txostena osatuko da, lortutako puntuazioaren arabera. Ondoren, ebazpena argitaratuko da eta

puntuaziorik onena duten hiru hautagaitzak hautatuko dira 2. Fasera igarotzeko; betiere, 30 puntu baino gehiago lortu badituzte.

Berdinketarik izanez gero, irizpide hauetan lortutako puntuaziorik handiena hartuko da aintzat, hurrenkera honetan: erronkara egokitze tekniko eta esperientzia tekniko garrantzitsua. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, zozketa egin ahal izango da.

8.2 2. fasea: Ebaluazio kualitatiboa (50 puntu, gehienez)

Aurrez hautatutako hautagaiei aurkezpen- eta kontraste-saio baterako deia egingo zaie Balorazio Batzordearekin eta enpresa parte-hartzailearekin. Bertan, beren esperientzia profesionala, motibazioa, planteatutako erronkaren ikuspegia eta egiten zaizkien galderei erantzuteko aukera izango dute.

Fase honen helburua da hautagaitza bakoitza enpresa parte-hartzaileak planteatutako erronkara egokitzen den baloratzea, baita lankidetzan-ingurune batean lan-harreman eraginkorra garatzeko duen gaitasuna ere.

IRIZPIDEA	DESKRIBAPENA	GEHIENEO PUNTUAZIOA (50 puntu)
1. Hautagaitzaren egokitasun profesionala erronkarekiko	Hautagaitzaren ibilbidea, esperientzia, ezagutzak eta ikuspegi profesionala zenbateraino egokitzen diren baloratuko da, enpresa parte-hartzaileak planteatutako erronkari heltzeko. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: erronka ulertzea, diseinu-aukera garrantzitsuak identifikatzeko gaitasuna, proposatutako metodologiaren egokitzapena eta enpresarentzat balioa sortzen lagunduko duen ikuspegi baten ekarpena.	25 puntu
2. Enpresarekin lankidetzan aritzeko eta proiektua garatzeko gaitasuna	Hautagaitzak enpresa parte-hartzailearekin lan-harreman eraikitzailea ezartzeko eta proiektua lankidetzan-testuinguru batean garatzeko duen gaitasuna baloratuko da. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan: entzuteko gaitasuna, enpresaren beharrak ulertzea, komunikazio-argitasuna, malgutasuna eta egokitze gaitasuna, konfiantza sortzea eta proiektuaren garapenarekin erakutsitako inplikazio- eta konpromiso-maila.	25 puntu.

2. fasearen garapena eta bermeak

Aurkezpen- eta kontraste-saioa formatu komun baten arabera egingo da aurrez hautatutako hautagai guztientzat, tratu- eta aukera-berdintasuna bermatuz.

Balorazio Batzordeak enpresa parte-hartzailearen ordezkarien partaidetza izango du, eta haien iritzia kontuan hartuko da balorazio orokorrari laguntzeko elementu gisa. Nolanahi ere, azken puntuazioa Batzordeari bakarrik dagokio.

Diseinuko profesionala edo estudioa fase honetan lortutako guztizko puntuazioaren arabera hautatuko da.

Ebaluazioa amaitutakoan, Batzordeak balorazio-txosten arrazoitu bat egingo du, eta bertan hautagai-zerrenda bakoitzari emandako puntuazioak eta ezarritako irizpideei dagokienez egindako balorazioa justifikatzen duten arrazoiak jasoko dira.

Diseinu-estudioaren azken hautaketa jasotzen duen ebazpena posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie parte hartzen duten hautagai guztiei.

Jakinarazpen horrek aukeratutako hautagaitza identifikatuko du. Era berean, pertsona interesdunek informazio gehigarria eskatu ahal izango dute lortutako balorazioari eta hura oinarritzen duten arrazoiei buruz.

Hautagai bakar batek ere ez badu erronkarekiko behar adinako egokitzaileen-mailarik lortzen, hautaketa-prozesua hutsik utzi ahal izango da, arrazoitutako ebazpen bidez.

9. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean (DBEO) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DPBEDBLO) xedatutakoaren arabera, jakinarazten da deialdi honen esparruan emandako datu pertsonalak Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek tratatuko dituela (helbidea: Nafarroa kalea 5, 48001 Bilbo), tratamenduaren arduraduna den aldetik.

9.1 Tratamenduaren helburua

Datuak Dueto Bilbao Programan aurkeztutako hautagaitzen parte-hartzea, ebaluazioa eta izapidetzea kudeatzeko erabiliko dira, honako hauek barne:

- Baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
- Proiektuen balorazioa.
- Prozesuarekin lotutako komunikazioak kudeatzea.
- Programaren jarraipena, kontrola eta justifikazioa.
- Estatistika anonimizatuak egitea, politika publikoak ebaluatzen.

Tratamendu horiek Bilbao Ekintzari enpresa-ehuna sustatzeko, diseinua eta berrikuntza bultzatzeko eta tokiko garapen ekonomikoa bultzatzeko esleitutako interes publikoko funtzioak betez egiten dira.

9.2 Tratamenduaren oinarri juridikoa

Tratamendua honetan oinarritzen da:

- DBEOren 6.1.e) artikulua: interes publikoaren alde edo botere publikoak baliatuz zeregin bat betetzea.
- DBEOren 6.1.c) artikulua: administrazio-araudiaren, gardentasunaren, kontrolaren eta ikuskapenaren ondoriozko legezko betebeharrak betetzea.

9.3 Datuak gordetzea

Datuak deskribatutako helburua betetzeko behar den denboran gordeko dira, eta, ondoren, administrazio-erantzukizunari, kontratuari, kontabilitateari, gardentasunari eta artxibo publikoari buruzko legeriak eskatutako epeetan. Ondoren, behar bezala blokeatuko dira, eta, hala dagokionean, ezabatu egingo dira.

9.4 Hartzaileak eta lagapenak

Oro har, ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legezko betebeharretan izan ezik, gardentasunari, finantza-kontrolari, ikuskaritza publikoari edo jurisdikzio-organismoen errekerimenduei buruzko araudietatik eratorritakoa barne.

9.5 Interesdunen eskubideak

Datuen titularrek edozein unetan baliatu ahal izango dituzte honako eskubide hauek:

- Eskuratzea
- Zuzentzea

- Ezabatzea
- Aurka egitea
- Tratamendua mugatzea
- Eramangarritasuna, hala dagokionean, tratamenduaren arduradunari zuzendutako idazki baten bidez, bere nortasuna egiaztatuz, helbide honetan: datos@bilbao.eus edo Nafarroa kalea, 5 – 48001 Bilbo.

Halaber, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (AEPD) www.aepd.es

9.6 Tratamendu gehigarriak

Bilbao Ekintza, E.P.E.L.ek egindako datuen tratamenduei buruzko informazio zehatza nahi izanez gero, eskuragarri dagoen pribatutasun-politika kontsulta daiteke edo datos@bilbao.eus helbidearen bidez eskatu.

10. KONFIDENTZIALTASUNA

Deialdi honen esparruan sortutako informazioa ez da tratatuko bere eremuari dagokiona ez den beste ezertarako, eta biltzen dituzten datu pertsonalen zein enpresakoen konfidentzialtasuna bermatuko da, honako baldintza hauetan publizitatearen arloan jasotzen diren ahalmenak ezertan eragotzi barik.

11. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

Bilbao Ekintzak deialdi honetako baldintzak interpretatzeko eskubidea izango du, zalantzarik sortzen duen edozein egoera dela-eta; halakoetan, behin betiko erabakiak hartuko ditu.

Oinarri hauetan parte hartze hutsak berekin dakar indarrean dagoen legeria betetzea, oinarriak onartzea eta Bilbao Ekintza E.P.E.L.ek edozein zalantza argitzeko edo horiekin lotutako edozein interpretazio lotesle egiteko duen gaitasuna aitortzea. Bilbao Ekintzak ez du erantzukizunik izango hirugarrenen eskubideen balizko urraketen aurrean.